

«Lurraren aberastasun izugarria eta ahultasun beldurgarria bistaratzen ditu 'Home' filmak»

Hamarkada gutxi batzuetan gizakiak erabat apurtu du lau mila urtetako oreka.

Lurretik jasotako herentzia ez du batere zaindu eta Lurraren beraren etorkizuna arriskuan jarri du. Garesti atera zaio gehiegikeria, baina beranduegi da ezkorra izateko: hamar urte besterik ez dauzka gizakiak Lurraren aberastasunen ustiaketa basatiarekin bukatu eta bere kontsumo ohiturak aldatzeko. Horixe "Home" filmaren laburpena, mezu nagusia.

Yann Arthus-Bertrand argazkilariak filmatutako eta zuzendutako proiektuak bide luzea egin du 2009. urteko ekainean estreinatu zenetik, egileek berek espero ez bezalako bidea. Arthus-Bertrand GoogPlanet fundazioko sortzailea eta lehendakaria da eta Nazio Batuen Ingurumeneko Borondate Ona programaren enbaxadorea. Bizitza osoa eman du ingurumenaren aldeko lan etengabea eta aipatu pelikularekin lortutako oihartzuna ordain polita izan da saiakera horiek guztientzako. Lana handia da, bai tamainagatik -54 herrialde, 217 egun grabatzen, hiru talde batera errodatze lanetan murgilduta, 21 hilabeteko bidaia munduan barna, hiru urteko lana...-, bai lortu duenagatik ere: ikusi duten mundu guztiko 600 milioi lagunek ingurumenarekiko duten jarreraz hausnarketa egin dute.

"Home" filma besapean hartuta izan da aste honetan Tolosako Naturaldia jardunaldietan Jacqueline Gooffart, GoodPlanet fundazioaren baitan lan horren zabalkundeaz arduratzen dena.

Azaldu zertan den «Home» pelikularen proiektua.

Klima aldaketaren inguruko ikuspegi erabat berria eskaintzen duen filma da "Home". 54 herrialdetako 120 lokalizazio eskaintzen ditu eta guztiak aurretik hartutako irudiak dira. Lurraren edertasun izugarria eta ahultasun beldurgarria bis-

taratzen ditu pelikulak. 2009ko ekainean estreinatu zen munduko hainbat tokitan aldi berean -zinemetan, DVDan, Interneten...- eta dohain. Helburua da jendeak Lurrak bizi duen arriskuaren kontzientzia har dezan eta uler dezan oraindik gure Lurra salbatzeko garaiz gabiltzala. Hori da mezu nagusia, eraikitzailea eta baikorra. Izan ere, Yann Arthus-Bertrand lanek badute tasun hori: egoeraren larritasuna azaleratzen dute baina horren aurrean aterabideak eskaintzen dituzte. Hain juxtu, "Home" filmaren leloa honako hau da: beranduegi da ezkorrak izateko.

Filmak «aparteko istorioa kontatzen du, zurea». Batzuetan ez gara konturatzen gutako bakoitzak zenbat kalte eta zenbat mesede egin dakioke en ingurumenari.

Bakoitzak, bere aukeren baitan, zerbait egin dezake. Batzuek asko egin dezakete eta beste batzuek gutxiago, baina hondar aletxo bakoitza garrantzitsua da. Mundu guztiak egin dezake zerbait ingurumenaren alde, eta horrela bakarrik lor daiteke zerbait mugitzea.

Bai, bai, argiak itzali eta uraren txorrota itxi hortzak garbitzen ditugun bitartean. Baina hori ez da nahikoa, ezta?

Egia da bizi dugun sistema oso basatia dela eta gauza asko jarri behar direla hankaz gora. Baina Yann Arthus-Bertrandek filmean defendatzen du gauzak alda daitezkeela eta eguneroko ohitura eta gauza txikiak aldatuta emaitza onak lor daitezkeela. Joan den urteko azaroan Seulen izan zen, bakearen aldeko konferentzia batzuetan, eta hain juxtu bere filmarekin zabaldu zen ekitaldia. «Nolatan ingurumenaren inguruko film bat bakeari buruzko konferentzia batean?», galdetu zioten. Eta erantzun zuen ingurumenaren garapenak asko egin dezakeela munduko bakearen alde, bakea ingurumena babesteko motore bat delako eta oreka alor guztietan delako garrantzitsua.

Oreka diozu. «Gizakiak, espezie ahula den arren, baliabide guztiak konkistatu ditu beste inolako espeziekin egin ez duen bezala». Horixe, filmeko beste gogoeta bat.

Horrela da. Istorio bakoitza pertsonala da eta bakoitzak bizitzan egiten duen bidea ere bai. Badira bizitzan helmuga bakarra dutenak: ahalik eta diru gehiena pilatu horretarako bidean edonor edota edozer zapaldu behar badute ere. Eta badira bizitzan pausu lasaia ibiltzea nahiago dutenak, naturarekin eta norberaren barruarekin koherentziaz eta orekaz jarduten dutenak. Ni haurra nintzenean marrubiak ekainean jaten ziren eta kito. Gaur egun, urte guztian topa daitezke marrubiak, munduko txoko guztietatik datozenak eta batere zaporerik ez dutenak. Berdina gertatzen da, adibidez, zainzuriek. Zertarako balio du horrek guztiak? Hori ez dator bat naturaren orekarekin. Uste dut gaur egun bizi dugun sistemak gero eta gauza gehiago izateko grina sortzen duela, baina izateagatik ez beste ezerrik. Eduki edukitzeagatik. Horri buruz galdetu beharko genioke gure buruari.

«Dena bizkortzen ari da». Esaldi hau askotan aipatzen da filmean.

Gaur egun jende guztiak dena oso azkar nahi du, berehala, ez daki itxaroten. Adibidez, haur bati bere errefauak lortzen erakutsi nahi badiozu jakin beharko du lehendabizi landatu egin behar dela; gero egunero-egunero ura bota behar zaiola; egun batzuetara hostotxo batzuk haziko zaizkiola; eta beste tartetxo batera landarea aterako dela; eta geroxeago aterako dela; eta berak landatutako errefau hori jan ahal izango duela orduan. Bizitzaren zikloak bere denbora behar du eta hori ikasi beharko du haurrak, pazientziaz itxaroten, naturari begiratzen.

Filmean oso garbi geratzen da munduan jende guztia ez dela berdin bizi. Munduan

JACQUELINE

GOOFFART

GOODPLANET FUNDAZIOA

Ingurugiro arazoez informazioa ematea

eta herritarrak heztea. Hori da

GoodPlanet fundazioaren helburua.

Jacqueline Gooffart Tolosako Naturaldian

izan da «Home» pelikularekin.

amagoia.mujika@gaur8.info